

# OZEANOAREN KONKISTA

## Ustiapen pedagogikoa

Albumaren analisisan, eta irudien eta testuaren ezaugarri taulan oinarrituz, jarduera franko plantan ezar daitezke, landu nahi denaren arabera.

Horra lan ardatz zenbait:

- Errealitatearen eta fikzioaren arteko mugak, ipuinean munstroen irudikapenak eta azkenean harrapatu duten balea, ametsa dena eta ez dena, albuma vs argibide dokumentua
- Sinesmenen eta usaien eragina, eta horien gaintzeko moldeak (urraspide zientifikoa, lehenik Ametsek plantan ezarria eta ondotik historian zehar egiazki gertatuak)
- Desobeditzea eta obeditzea, gehiengoaren segitzea ala ez -> Ametsek debekua gaintitu ez balu, sineskeriek segituko zuten (ikus loturak *Bildots bihurria* albumarekin adibidez.)
- Elkertasuna -> Xakurraren salbatzeko, besteen laguntzaren beharra du Ametsek.

Kasu honetan, ulermena, eta zientziekiko loturaren lantzea lehenetsi dugu.

### 1. urratsa: albumaren ezagutzea

Azalaren aitzineko eta gibleko aldeei so eginez istorioa eta pertsonaiak zer izan litezkeen irudikatzea.

Taldeka edo binaka, ikasleek hipotesiak eginen dituzte, ipuinaren irakurketa segitu aitzin. Ondotik talde bakoitzak bere lana besteei aurkeztuko die. Hipotesiak eztabaidatuko dira eta argumentatuko.

### 2. urratsa: Aitzin solasa (6.- 7. or.)

Ikasleei irakurraraziko zaie, isilik.

Irakasleak: “Pertsonaiarik-aipatzen dea testu zati horretan?”

“Zerbait gertatzen ote da?”

“Zertako da beraz zati hori?” -> ipuina zer izanen den aurkezteko/ giroan sartzeko.

“Binaka, testuaren zati fotokopiatuan handitasuna adierazten duten hitzak eta erran-moldeak kolore batez azpimarra itzazue, ttipitasuna adierazten dutenak beste kolore batez. Zer erran genezake kontatuko den istorioaz?”

“Irudiari beha iezaiozue eta zatiko azken erranaldia irakur. Zer erran nahi du?”

### 3. urratsa: Ipuinaren hastapeneko egoera (8. eta 9. or.)

Ikasleek bakarka irakurriko dute.

Irakasleak: “6.-7. eta 8.-9. orrialde bikoitzetako irudiei beha iezaiezue. Zer da berdina eta zer desberdina?”. 7. orrialdeko azken erranaldiaren erranahiaz egin oharrak oroitaraziko dira.

“Bost minutu har itzazue horien aurkitzeko: denbora (noiz?), lekua (non?) pertsonaiak (nor?)”

“Hiztegian xerka ezazue *madarikatua* hitzak zer erran nahi duen.”

“Eskuineko orrialdearen bukaeran, hitz bat errepikatua da. Zer inpresio ematen du?”

#### 4. urratsa: pertsonaia nagusiak (10.-11. or.)

Ikasleei testua soilik emanen zaie.

“Testu bakoitzari dagokion ilustrazioa egizue.”

Ilustrazioak arbelean ezarriko dira. Azpimarratzen ahalko da Amets mutikoa ala neska den ez dela errana, eta ilustratzeko mementoan ez dituztela denek ber hautuak egin.

Jatorrizko ilustrazioekin konparatuko da, eta ilustratzailearen hautuez solasaldia egingen.

- Ez ditu herrixka eta herritarrak marraztu.
- Amets mutikoa ala neska den ez dakigu (funtsean ez du hain segur muntarik).
- Xakurra “bitxia” da, ez da egiazko xakur baten potreta.
- Bigarren ilustrazioan Amets bakarrik ageri da hodei baten gainean balitz bezala -> zergatik? Hodei gainean ibiltzen ote da ipuinean? Zertako beraz?

Hautu horien zergatiak aipatzen ahalko dira: Hain segur pertsonaia nagusiak izanen baitira (izendatuak diren bakarrak ere dira), horiek behar bezala aurkeztu behar dira. Haien eta herritarren arteko desberdintasunen markatzeko? Amets eta Lagun zergatik dira beste herritarrak ez bezalakoak? (bigarren ilustrazioak desberdintasun hori oraino azpimarratzen du: Amets kurios eta ameslaria baita, bertzeak ez bezala).

#### 5. urratsa: Herritarren usteak (12.-13. or.)

12. eta 13. orrialdeak irakur itzazue eta taula bete:

Pertsonaiak				
Zer uste dute?				
Zergatik?				
Marraskia				

“Erantzun guziak entzunik, haurrak ez zekien egia non hasten zen eta non bukatzen...”

Erranaldi horrek zer erran nahi du?

Zergatik ez du nehoren bertsioak haurra konbentzitzen?

14. orrialdea emanen zaie. Irakasleak irakurriko du.

“Zer da berri?” -> Orain arte agertu ez zen pertsonaia: belagilea.

“Zer dio hark itsasoko izaki horietaz? Erranaldia idatz ezazu.”

“Zergatik sinesten du hori?”

“Lehenago bete taulari so eginez, errazu herritar guziak belagilearekin ados direnez.”

“Itzal handiko jakintsua” erran moldeak zer erran nahi du zure ustez?

“Herritar guziak bezala, haurra ere mutu egoten zen” Azpimarratua den hitzak zer erran nahi du?

“Norbaitek ba ote zuen belagilearen kontrako iritzirik? Zergatik?”

“Ametsek isilik egon behar...” Binaka, ondoko orrialdean zer gerta litekeen idatz ezazue.

## 6. urratsa: Erabakia (15. or.)

Ikasleek azken saioan asmatu segidak aurkeztuko dituzte. Konparatuko dira eta eztabaida sortuko (zenbaitek debekua urratuko duela erranen dute beste batzuek ezetz menturaz).

Testuaren lehen paragrafoa baizik ez zaie emanen irakurtzeko.

“Jakin-minez, eta bere buruaz fida” zer erran nahi du?

“Zer erabaki du Ametsek? Zergatik?”

“Zergatik Amets da erabaki hori hartu duen bakarra?”

“Zer dira zure ustez erabaki horren alde txarrak eta alde onak?”

“Baina nola egin? Haiei nola hurbil? Nola kausi?” -> Amets bazina, nola eginen zenuke? Idatz eta marraz dezakezu, zure egin-moldearen urratsen adierazteko.

Testuaren bigarren paragrafoa banatuko zaie.

“Zer ideia bururatu zaio Ametsi? Nola ukan du ideia hori?”

“*Almadia* hitzaren definizioa hiztegian xerka ezazu eta marraz.”

## 7. urratsa: teoriaren gauzatzea (16.-17. orrialdeak. 16. or.-ko testua soilik banatuko zaie ikasleei.)

16. orrialdeko testua talde osoan irakurriko da, erranaldi bakoitza ikasle batek irakurriz.

“Bi orrialdeetako irudietan urdinez irudikatua denari so egin iezaiozu. Zertaz ohartzen zara? Posible dea behiak eta baleak ur eremu berean izatea? Zergatik? Marrazkilariak zer adierazi nahi izan du zure ustez?” -> Ideia hau da: Ametsen gogoan, urmaelean eta itsasoan gauzak berdin gertatuko direla. Batean trebatuz bestean kausituko duela.

“Eskuineko ilustrazioan, so egiozu xakurrari. Zer itxura du? (beldurtua dirudi)”

“Zure ustez gauzak ongi joanen ote dira? Zergatik?”

17. orrialdeko testua irakurriko dute.

18.-19. orrialdeetako ilustrazioa erakutsiko zaie.

“Nola ageri da balea irudian? Zergatik?”

Zer gertatu den idatz ezazue, Lagunen gogoetak eta Ametsenak asmatuz.

-> Luzapena: Zientzietan, eboluzioari buruzko jarduera: jendeen eskuetako eta baleen hegaletako hezurren konparatzea. Ondotik beste zenbait ugaztunenak ere parekatzen ahalko dira (ziminoa, gauenara, etab...).

- I) Ugaztunen arteko konparazioa, hipotesiak (zergatik dira hain berdinak gure eskuetako hezurak?), argibide bilaketa edo aditu bati galdegitea, ondorioa (hipotesiak baieztatuak ala ez).

- II) Beste bizidun moten “eskuetako” hezurak ere parekatzea. Ahaidetasunen finkatzea, hezurdura hurbilago, eta ahaide komuna hurbilago.

## 8. urratsa: elkarlana (20.-21. or.)

20.-21. orrialdeetako testua talde osoan irakurriko da.

Galdeak:

“Zer da Ametsek egiten duen lehen gauza? Zergatik?”

“Zer erantzuten dute herritarrek lehenik? Zergatik?”

“Azkenean herritarrek laguntzea onartzen ote dute? Hori adierazten duen erranaldia kopia ezazu.”

“Aldi honetan kausituko ote dute? Zergatik?”

22. orrialdea bakarka irakurriko dute.

“Zuen ustez errealista ote da hola balea handi baten harrapatzea?”

“Zergatik? Nola froga genezake?” (Argibide bilaketa lantzen ahalko da, eta iturrien fidagarritasuna.)

Luzapena: Ikus [Ikus Ikas.eus](http://ikas.eus/webgunean) webgunean, itsasbazterrari buruzko dokumentua eta ariketak (<http://ikas.eus/spip.php?article1780&lang=eu>)

## 9. urratsa: Ondorioa (23., 24., 25. or.)

Ikasleek hiru orrialdeak irakurriko dituzte, lehenik bakarka, eta ondotik bat bestearen ondotik, ozenki.

“Zer zen Ametsen helburua balearen harrapatzera joan zelarik?” (Hemen helburu bikoitza azpimarratuko da, alde batetik hastapeneko hipotesiaren frogatzea, bestalde Lagun salbatzea)

“Kalaka eta oihu harrabotsek belagilea ere hurbilarazi zuten. Animalia handiari hurbildu zitzaizalarik, bazterrak isildu ziren.” Zergatik isildu ziren bazterrak? Zerk urratu zuen isiltasun hori? Erranaldia idatz ezazu eta esplika.

“Belagileak onartzen ote du tronpatu dela? Nola dakizu?”

“Orain arte menderatzen nituen ezagutzek eta sinesteek gogo hertsitu didate.” Zer erran nahi du?

“Zer diferentzia da orrialde horietako eta 12. - 13. orrialdeetako ilustrazioen artean?” (irudimenari lotu ilustrazioak vs behatze ilustrazioa)

“Ba al dakizu sinestearen eta jakitearen arteko diferentzia esplikatzeko?”

Istorioaren bilduma

Taula hau osa ezazu Ametsen abenturak laburbiltzeko:

Ametsek uste duena (hipotesia)	<i>Munstrorik eta madarikaziorik ez da, animaliak baizik ez dira.</i>
Uste horren frogatzeko egin nahi duena (protokoloa)	<i>Animalia bat harrapatu</i>
Konkretuki zer egiten duen	<i>Almardia bat egin eta Lagunekin trebatu</i>
Kausitzen ote du?	<i>ez</i>
Ondotik egiten duena	<i>Esperimentazioa hobetu (laguntza eskatuz eta huts egitetik ikasiz)</i>
Ondorioa	<i>Balea bat harrapatu du eta herrira ekarri. Hastapeneko hipotesia frogatua du.</i>

Ikasleek zientzietan urraspide horren baliatzeko usaia baldin badute, aise ezagutuko dute. Bestela parada egokia da zientziak nola aitzinatzen diren aipatzeko, eta beste edozein proiektutan urraspide beraren baliatzeko.

### **10. urratsa: ustekabekoa (26. or.)**

Zuen ustez, irakurri dugun istorioa egiazkoa ote da? Zergatik?”

Azken orrialdeko irudia emanen zaie ikasleei, testurik gabe.

“Orrialde horretako ilustrazioak zerbait oroitarazten ote dizue?” (Ikus lehen orrialdekoa)

“Zuen ustez zergatik ageri da berriz dutxulua? Irudiari dagokion testua asma ezazue (Nahi izanez geroz pista bat ematen ahal zaie pertsonaiaren izena Amets dela oroitaraziz)”

Egiazko bukaera irakurriko da.

“Zer ondorioztatzen duzue beraz ipuinari buruz?”